


## EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %14k M15Mren mobilizazioen batean parte hartu dute

**Parte hartu dutenen profila hau da: goi-mailako ikasketadunak, politika-gaietan interesatuak, parte-hartzaileak eta gizarte-eredua aldatu nahi dutenak**

M15Mren mobilizazioak hasi zirenetik urtebete igaro eta gero, EAEko gazteek 2011ko maiatzaren mobilizazioetan izan zuten partaidetzaren inguruko datu berri batzuk aurkezten ditu Gazteen Euskal Behatokiak.

Datuok 2012ko martxoan EAEko 15 eta 29 urte bitarteko 1.500 gazteri egindako inkesta batetik datoz. Euskadin, M15Mren mobilizazioetan zenbat gaztek parte hartu duten jakitea eta euren profila eta ezaugarriak ezagutzea da ikerketaren helburua.

Inkestako datuen arabera, 15 eta 29 urte bitartekoen kolektiboaren erdiek (%50) oso edo nahiko gogoko dituzte M15Mren mobilizazioak; %38k ez dituzte oso gogoko edo ez dituzte batere gogoko; eta gainerako %12k ez dute iritzirik adierazi auzi horri buruz.



M15Mren mobilizazioetarako begikotasun-maila handia edo nahikoa dutenen proportziorik handienak Araban bizi diren gazteengan (%57), lanean dabiltzanen artean (%58), goi-mailako ikasketadunen artean (%60), politikan interes handia edo nahikoa dutela adierazten dutenengan (%69) eta euren burua ideologikoki ezkertiarzat jotzen dutenengan (%63) hauteman dira.


Parte-hartzeari dagokionez, EAEko gazteen %14k M15Mren mobilizazioen batean parte hartu dutela diote.

M15Mren mobilizazioetakoren batean parte hartu duten gazteen profila taxutze aldera, kolektibo horren eta EAEko gazteria osoaren arteko osaeran dauden aldeak kontuan hartu dira, eta esanguratsuak direnak bakarrik nabarmendu.

M15Mren mobilizazioen batean parte hartu dutenen artean, honako kolektiboetako gazte gehiagoren presentzia dago, EAEko gazteria osoaren baitan baino:

- ✓ Arabako eta Bizkaiko biztanleak
- ✓ 20 eta 29 urte bitarteko gazteak
- ✓ Goi-mailako ikasketak dituzten gazteak (unibertsitateko ikasketak edo goi-mailako heziketa-zikloak)
- ✓ Ikasle- edota sindikatu-erakundeetan dauden edo egon diren gazteak
- ✓ Boluntario-jarduerak egiten dituztenak edo egin izan dituztenak
- ✓ Politikan interes handia edo nahikoa dutenak
- ✓ Politikari dagokionez, euren burua ezkertiarizat jotzen dutenak
- ✓ Gure gizarteak erreforma sakonak behar dituela edo, areago, goitik behera aldatu behar dela uste dutenak
- ✓ Gazteen egoera, oro har, txarra dela uste dutenak
- ✓ Uste dutenak instituzioek ez dituztela gazteen iritzia aintzat hartzen
- ✓ Gai publikoetan aktiboki parte hartu nahiko luketenak.

### EAEn, M15Mren mobilizazioetan parte hartu duten gazteen profila



EAE-ko gazteen profil orokorraren eta M15M-ren mobilizazioetan parte hartu dutenenaren arteko erkaketa		
(%)	M15Mren mobilizazioetan parte hartu dutenak	Gazteria osoa
<b>Bizilekuaren lurraldea</b>		
Araba	17	15
Bizkaia	70	53
Gipuzkoa	13	32
<b>Adin-taldeak</b>		
15-19 urte	20	27
20-24 urte	35	32
25-29 urte	45	42
<b>Ikasketa-maila</b>		
Derrigorrezkoak	24	38
Derrigorrezkoen ondorengo Bigarren Hezkuntzakoak	33	31
Goi-mailakoak	42	31

<b>Ikasleen elkarteetan parte hartzea</b>		
Gaur egun kidea da	<b>6</b>	4
Kide izan da, baina dagoeneko ez da	<b>15</b>	7
Ez da inoiz kide izan	<b>79</b>	88
Ed/Ee	1	1
<b>Sindikatuetan parte hartzea</b>		
Gaur egun kidea da	<b>5</b>	2
Kide izan da, baina dagoeneko ez da	<b>5</b>	2
Ez da inoiz kide izan	<b>89</b>	95
Ed/Ee	1	1
<b>Boluntario-jarduerak burutu izana</b>		
Gaur egun burutzen ditu	<b>9</b>	6
Burutu izan ditu, baina dagoeneko ez ditu burutzen	<b>25</b>	15
Ez du inoiz horrelakorik egin	<b>62</b>	77
Ed/Ee	4	2
<b>Politikarako interesa</b>		
Handia	<b>8</b>	5
Nahikoa	<b>33</b>	15
Txikia	<b>32</b>	32
Batere ez	<b>26</b>	47
Ed/Ee	2	1
<b>Ezker-eskuin ardatzean kokatzea</b>		
Ezkertiarra	<b>59</b>	44
Zentrokoa	<b>11</b>	11
Eskuindarra	<b>3</b>	4
Ed/Ee	27	40
<b>Gure gizarteari buruzko iritzia</b>		
Dagoen moduan ondo dago	<b>1</b>	2
Aldaketa txikiak eginez gero, hobeto daiteke	<b>18</b>	30
Erreforma sakonak behar dira	<b>55</b>	47
Goitik behera aldatu behar da	<b>25</b>	18
Ed/Ee	1	3
<b>Gazteen egoeraren balorazioa, oro har</b>		
Ona	<b>8</b>	13
Erdipurdikakoa, alderdi batzuetan ona, beste batzuetan txarra	<b>47</b>	48
Txarra	<b>44</b>	38
Ed/Ee	1	1
<b>Instituzioek gazteen iritzia aintzat hartzen ote dituzten</b>		
Bai	<b>12</b>	17
Ez	<b>83</b>	73
Ed/Ee	5	10
<b>Gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahia</b>		
Nahiko lukete	<b>58</b>	42
Nahikoa parte hartzen dutela uste dute	<b>8</b>	7
Ez lukete nahiko	<b>25</b>	42
Ed/Ee	8	9

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

